



Guggenheim Museoko arduradunek 18 langileren kaleratzea suposatzen duen proposamena aurkeztu die langileei. Honen aurrean langileek greba mugagabea iragarri dute irailaren 5etik aurrera. LAB, gaurdaino bezala, langileen ondoan izango da eta ez dugu baztertzen bide judizialari ere ekitea. Bestalde, instituzioen konpromisoa exijitzen dugu gatazta hau desblokeatzeko.

Uda beroa izan dugu ekintza sindikalari dagokionez eta atzo, irailaren 29an, enpresarekin izandako bileran, honako erabakia jakinarazi zuten:

Museoak ez du lehiaketa publikora aterako egun eskaintzen den zerbitzua. Konponbidea, euren esanetan, 18 langileren kaleratzea da eta 3 langile kontratatzea lanaldi osoz, enpresaren bidez eta ez azpikontrataren bidez.

LABetik, egungo langileentzako irteera batekin abiatutako borroka kolektiboa berkokatu beharko genuke. Gogora dezagun oinarri eta helburua prekarietatea eta azpikontratazioarekin amaitu eta lanpostuak mantentzeko borrokatzea zela, dela eta izaten jarraituko duela.

GUGGENHEIM Museoak, prekarietatetik irtetea aldarriatzen duen plantila honetako 18 pertsona kaleratu nahi ditu. Neurri honekin enpleguak suntsitzeaz gain urteetan goraiapatutako profesionalen bertuteak zalantzan jarri eta mespretxatzen ditu.

Neurri honekin zerbitzua are gehiago prekarizatzen dute. Hain zuzen ere lan karga handiko uneak eta aktibitate osagarriak aldi baterako kontratuak dituzten eta ETT bidez kontratatutako langileek beteko dituzte, eta jardunaldi are baxuagoekin.

Guggenheim Museoak, irteera honekin, orain arte museoko erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua ez ematea erabaki du, doako eskaintza pedagogikoa —museoa baten funtzioetariko bat— murriztuz. Hain zuzen ere 3 lan posturekin ezinezkoa da gaur egungo zerbitzua betetzea. Gaur egun, batz bestea, langile baten asteko jardunaldia 18 ordukoa da, beraz plantilla osoak 396 ordu egiten ditu astean; sortu nahi dituzte 3 postuekin 120 ordotara baino ez dira iritsiko.

Beraz argi dago gezurretan ari direla lan orduak mantenduko direla diotenean. Zalantzan jartzen dugu ere hiru pertsona horiek kontratatzeko erabiliko den metodologia, Campo Ochandiano izango baita hautaketa burutuko duena, hau da Patronatoa osatzen duten erakundeen enpresa "laguna", gainera selekzioa gaur egun existitzen ez den lan poltsa batean oinarrituz egingo da.

Museoa Bizkaian ekonomia pizteko tresna gisa saldu zuten eta saltzen ari diren erakudeak ez dira langileen lan baldintzekin arduratzen. Azken urteetan soldata eta lan baldintza prekarioak onartu dituzte, eta orain ez dute ahotsa altxatzen nahiz eta ikusi lan postuak amortizatzen ari direla eta ematen den zerbitzua okerrera doala.

Guggenheim museoak erabaki hau unilateralki hartu du, replikarako edo negoziatorako aukerarik gabe, langileen eskaerak helarazi ostean behin betiko proposamen bat mahai gainean jartzera mugatu da. Hau da erakunde honen jarrera bateratzaile eta solidarioa.

Guzti honengatik, eta enpresaren proposamenaren aurrean, LABek honako hau adierazten du:

- Proposamen honek alde on bat dauka, zerbitzuaren externalizazioarekin amaitzea eta museoko plantilaren baitan kokatzea. Hori da hartu beharreko bidea.
- Ez da onargarria oraingo langileak urteetan esplotatzea eta orain denak kaleratzea.
- Museoak berak mahai gainean jartzen dituen pautak jarraituz, gatazka honetatik irteteko bidea oraingo langileak museoak berak bere gain hartzean datza, jardunaldi eta ordutegi berarekin. Ezin dute zentzugabekeri hau pairatzen jarraitu.

LABek, langileekin batera, honako hau dio:

- Greba mugagabea hasiko dute, museoak langile guztiak kontratatu arte, jardunaldi eta ordutegi berarekin.
- Borrokari era kolektiboan ekin zioten eta kolektiboki irabaziko dute.

LABek ez du baztertzen bide judizialari ekitea eta Bizkaiko Foru Aldundia, Jaurlaritza eta Bilboko Udalarri gurekin batzeko deia luzatzen diegu, gai hau landu, hartutako erabakiaren aurrean gure kontrako jarrera azaldu eta gatazka honetan duten ardurarekin jokatzeko exigitzeko.

—
[irailaren 5ean greba mugagabea hasiko dute Guggenheimeko hezitzaileek](#)